

EUSKARA. Larunbatean aurkezpen jaia egingo dute, Bilboko Casillan



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Aurten Bai-k euskara ikasteko BOGA metodoa eta Hator Interneteko ataria aurkeztu zituen, atzo.

Internet bidez euskara ikasteko lehen metodoa prestatu du Aurten Bai-k

BOGA hizkuntza ikasteko «era atsegina eta erakargarria» dela adierazi du Fundazioak

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Internet bidez euskara ikasteko lehenengo metodoa ipini du sarean Aurten Bai Fundazioak: BOGA. Andoni Unzalu Aurten Bai Fundazioak lehendakariak azaldu zuenez, era guztietako erabiltzaileei begira egin dute euskara ikasteko metodo berria. Izan ere, euskara oinarri-oinarrian ikasteko aukera zein goi-tituluren bat eskuratzeko prestaketa eskaintzen ditu BOGAk. Guztira bost dira dauden mailak.

Zornotzako barnetegiaz gainera, Urbarri euskaltegia eta Bilboko Web Activa Idiomas akademia proiektuaren barruan daude. Horrela, ikastarorako izena ematerakoan, hiru zentroetako batekin lan egiteko aukera eskaintzen zaio ikasleari. Izan ere, sarean emandako azalpenak ikasleari nahikoak ez direla begitantzen zaionean, zentro horietako batera jo ahal izango da, irakasleren batekin zalantzak argitzeko. Hala ere, irakaslearekin *on-line* egoteko aukera ere ematen du BOGAk. Bestalde, euskaraz beste, ingelesez, gaztelaniaz eta polonieraz ere emango ditu behar diren azalpenak BOGA metodoak.

Unzaluk azpimarratu zuenez

HATOR ATARIA

Euskara erabiltzen den hiri birtuala sortu dute

BOGA euskara ikasteko metodoaz gain, Interneteko Hator atari euskalduna (www.hator.com) ere aurkeztu zuen, atzo, Aurten Bai Fundazioak. Euskara hutsez egin dago, eta lana prestatzeko, Dedo Multimedia enpresaren eta Donostiako Informatika Fakultatearen laguntza izan du Aurten Baik.

Xabier Etxeberria ardura-dunak aurkezpenean esan zuenez, batez ere diseinuari eman diote garrantzia. «Gazteengan pentsatuta egin dugu, bereziki». Hiri bateko kaleetako eraikinetan sartuta, zinema eskaintzak, kontzertu agendak, *chat*-a eta beste-lako zerbitzuak aurkituko ditu bisitariak.

BOGA metodoa euskara ikasteko «modu berritzaile eta atsegina» da. Horrela, diseinu «erakargarria» egiten ahalegindu dira Aurten Bai Fundazioak.

Besteak beste, Euskal Herrian girotutako ikus-entzunezkoak, ulermen ariketak, gramatika eta fonetika eskaintzen ditu BOGAk. Halaber, mintzamina ere kontuan hartu dute, ahots *chat*-a ere eskaintzen duelako; bai irakasleekin, bai gainerako ikasleekin.

Ikastaro bakoitzean hamabost istorio daude, eta bakoitzaren barruan hamar kapitulu. Saio bakoitzean gramatikako pare bat kontzeptu lantzen da, ikus-entzunezkoen, ariketen eta jokoen bidez. Kapitulu batek bestera pasatzeko, test bat gainditu beharko du ikasleak. Bestalde, eta material osagarri gisa, filmen transkripzioak, fonetika lantzeko grabazio estudioa eta *on-line* hiztegia izango ditu eskuragarri ikasleak. Aurten Baikoek azaldu dutenez, ikastaroa osorik egiteko, gutxienez 150 ordu behar dira.

Aurkezpen jaia, larunbatean

Bestalde, BOGA eta Hator Internet atari euskalduna aurkezteko, jaia egingo dute datorren larunbatean, 19:00etan, Bilboko Casilla kiroldegian. Besteak beste, rock kontzertua egongo da, Ken 7, Urtz, Idi Bihotz eta Berri Txarrak taldeekin. Joseina Etxeberria irrati esatariak aurkeztuko du jaia, eta atzoko agerraldian esan zuenez, musikaz gainera «ezustekoren bat edo beste» ere egongo da. Pantaila erraldoi bi ere izango dira.

HIZKUNTZAK

Gaur hasiko dira UZEIren hizkuntza corpusei buruzko jardunaldiak

Erredakzioa | DONOSTIA

Corpusari edo hizkuntzaren ikerketarako erabiltzen diren oinarritzko testuen bildumari buruzko ikastaroak antolatu ditu UZEIk. Gaur goizean egingo da inaugurazio ekitaldia Kutzaren Donostiako Andia kaleko aretoan, eta bertan izango dira besteak beste, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Jean Haritzelhar euskaltzainburua eta Javier Saizar UZEIko lehendakaria.

Jardunaldi horien bitartez, elkarteak egungo corpusak aztertu eta etorkizunean ager daitezkeen bestelako corpusak nolakoak izango diren eztabaidatzeko bideak ireki nahi izan ditu. Horreta-

rako Espainia eta Euskal Herriko hainbat aditu elkartuko dira ikastaroak iraungo duen bi egunetan.

Gaur, hizkuntza corpusaren ikuspegi orokorra azalduko du Santiagoko unibertsitateko Guillermo Rojok (Galizia). Jarraian hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren oinarritzko tresnak eza-gutu ahal izango dira. Horien artean, baita euskara aztertze-ko erabiltzen direnak ere.

Biharko jardunaldian, besteak beste, etorkizuneko erreferentzia corpusak izango ditu hizpide Miriam Urkia UZEIko lexikografia saileko ordezkariak. Amaieran, berri-ze, eztabaidatu diren gaiei buruzko mahai-ingurua egingo da.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Telematikari buruzko ikastaroak egingo ditu UEUK


Arantxa Elizegi | DONOSTIA

Ikasketa birtualak unibertsitatean eta hezkuntza iraunkorrean izenarekin, hezkuntza telematikari buruzko ikastaroak antolatu dituzte Udako Euskal Unibertsitateak eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak.

Jardunaldi horiek azaroaren 8an egingo dituzte, eta bertan izango da, besteak beste, Josep Coll Katalunian-ko Unibertsitat Obertako (UOC) errektoreordea. Xabier Isasi UEUKo zuzendaria- ren esanetan, «hezkuntza mailan gero eta garrantzitsuagoa den irakaskuntza mota bati buruzko gogoeta egitea da helburua». Iñaki Alegria UEUKo informatika

saileko ordezkariak atzo Donostian emandako prentsaurrekoan adierazi zuenez, «jardunaldi horietara etortzen direnek telematikaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko aukera izango dute».

Alegriaren arabera, «jardunaldi-ekin hiru dira lortu nahi diren helburuak: beste unibertsitate batzuen esperientzia ezagutzea; Euskal Herriko unibertsitateen esperientzia ezagutaraztea; eta teknologia berriak denon esku jartzea». Horrekin guztiarekin batera, erakusketa eta mahai-inguru bat ere antolatu ditu UEUK. Erakusketan hezkuntza mota horretan erabiltzen diren hainbat produktu izango dira ikusgai.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Xabier Isasi, Ramon Etxezarreta eta Iñaki Alegria, atzo.